

# Txirritola

Aramaioko euskara elkarteak argitaratuta.  
Udalak diruz lagundutako berripera.

2000ko abendua - 3. zenbakia

## TXIRRITOLA EUSKARA ELKARTEAK, UDALAK ETA GOIENAK HITZARMENA SINATU DUTE

**T**xirritola Euskara Elkartek, Aramaikoko Udalak eta Goienak hitzarmena sinatu berri dute. Azaroaren 22an sinatu zuten hitzarmena Txirritolako Lehendakaria den Mikel Aranzabalek, Aramaikoko Alkate den Iñaki Nafarratek eta GOIENAKO Lehendakaria den Estepan Plazaolak. Pozik azaldu ziren hiru-



rak ere euskararen normalizazioan proiektu honek suposatzen duenagatik.

Bailarako euskara elkarteek, Txirritola barne, GOIENA komunikazio proiektua martxan jarri ondoren maiatzean bailarako telebista den GOITB emititzen hasi zen. Hitzarmen honen bidez Udalak dirulaguntza emango dio Txirritola Euskara Elkarteari proiektu honetan Aramaioren partaidetza finantziatzeko. Aramaixok GOITBn daukan berriemailea Rosa Mari Mondragon da, beraz berriren bat baldin badaukazue jo berarengana. Bestelako zalantzaren bat kezka bat edo ideia bat izanez gero hor daukazue Txirritola Euskara Elkartea.

### GOIENKARIA KALEAN DA JADANIK

Orain arte GOITB eduki badugu ere abenduaren 1tik aurrera, Goienkaria kaleratzen da. Astero astero gure bailarako informazioa emango digun komunikabidea da honako hau. Goienkaria egunkari itxurakoa izango da eta barikero banatuko da Debagoieneko herrietako etxe guztietan, guztira 20000 ale.

### URTARRILAK 19: JAKOBA REKONDO

Txirritola elkarteak, prestatu ditu jadanik urte osoan zehar antolatuko dituen ekintza desberdinak. Aurreikusi den plangintzaren arabera, berripera bi hilabetetik behin kaleratuko da eta horretaz gain, hilabete guztietan izango da ekintza desberdinak herritar guztiei zuzenduta.

Lehendabiziko ekintza abian da jadanik, izan ere datorren **urtarrilaren 19an**, ostiralean, **arratsaldeko 7etan** eta **Aramaioko Udal Pleno Aretoan Jakoba Rekondo** izango dugu, landaretza, txertoak eta abarretaz hitz egiteko.

Interesa duzuenok, zabalik izango dituzue ateak.

## Julian Bengoa: 43 urte kanpaiak jotzen



**BERE ETXEAN BISITATU DUGU JULIAN, ASPALDIKO KONTUAK GOGORATZEKO ASMOTAN. 79 URTE DITU ETA AZKENENGO 43 URTEETAN BERE ETXE PARE PAREAN DUEN SAN MARTIN PARROKIAKO KANPAIJOLEA IZAN DA.**

**GAUR EGUN, OSASUNA ZAINDU BEHARRA DAUKA, ETA PASA DEN APIRILEAN UTZI EGIN ZION KANPAIAK JOTZEARI.**

**HALA ERE, IGANDERO MEZA ORDUA ZAINTZEN DU ETA ASKOTAN PENTSATZEN DU: NORK JOKO OTE DITU GAUR KANPAIAK? ETA AURRERANTZEAN?**

### ↳ -Nolatan hasi zinen kanpaiak jotzen?

- Afizioa txikitatik izan dut, kaldara zahar batzurekin eta makila batekin egiten nituen frogak. Baina San Martin Parrokiako kanpaiak jotzen 1957an hasi nintzen, gutxigorabehera. Historia piska bat eginez, 1956an hiru abade zeuden kalean, Don Andres, Montxon eta Don Doroteo, eta Kubara joateko asmoa zuten bez, beste bi abade bidali zituzten hona. Orduan Bizente Muñoa zen kanpaijolea, baina egun batetik bestera utzi egin zuen, eta Eugeniok jotzen zituen. Ondoren Jesus Mari Elejalde eta Don Jose hemengo parrokoak zirenean ere Eugeniok bueltako kanpaiak eta nik errepikak jotzen nituen.

### ↳ -Domeketan bakarrik jotzen ziren kanpaiak?

- Domeketan, jai egunetan eta enterri-xuetan jotzen diren kanpaiak. Auzoetan ohitura desberdinak egoten ziren, zapatuetan ere jotzen ziren kanpaiak, jai bezperetan. Nik

kalean bakarrik jotzen nituen, baina auzo bakoitzean kanpaijole bat egoten zen. Oraindik gogoratzen ditut batzuk: Aixolan Gregorio Arrizabalagak jotzen zituen, Uribarrik Uribarri azpikok, Gantzagan Norberto Errastik, Etxanen Juan Marik, eta abar. Batzuek gaur egun ere jarraitzen dute kanpaiak jotzen, beste batzuk hilda daude eta beste batzuk utzi egin dute.

### ↳ -Kanpaijole izateaz gain sakristau ere izan zara, ezta?

- Bai, halaxe da. Meza ordurako eliza prestatzen genuen Eugenio eta biok, eta gaur egun Eugeniok oraindik ere jarraitzen du sakristau lanean. Kanpaiak jotzen Barajuenetik Artikilu etortzen da gehienetan.

### ↳ -Kobratzen zenuten zerbait kanpaiak jotzeagatik?

- Eskerrik askoak. Egia esan, guretzat ardura bat izaten zen eta abadeek

eskertu egiten ziguten. Don Jose abadeak bazkariren bat ematen zigun, eta Jesus Marik egun pasa eramaten gintuen norabaitera.

### ↳ -Baina orain utzi egin diozu kanpaiak jotzeari.

- Bai, 43 urte egin ditut kanpaiak jotzen eta momentu honetan nire lehenengo lana osasuna da.

**“Oraindik domekero erlojuari begira egoten naiz, mezetako ordua zaintzen, eta Artikilu noiz etortzen den ere zaintzen dut.”**

Medikuak zaintzeko esan dit, eta etxean ere gogor egin zidaten, beraz apirilean jo nituen kanpaiak azkenengo aldiz. Egia esan, kanpantorrera dauden eskilarak ez dira batera onak, gora igotzea ez, jeistea da arazoa.

#### 👉 -Eta aurrerantzean uste duzu ohitura horrek jarraituko duela?

- Ez dakit ba. Toki batzuetan automatikoak jarri dira eta sakristiatik botoi bati eman eta nahikoa da

kanpaiak jotzeko. Zaila da ohitura horrek jarraitzea, ez dut uste gazteek kanpaiak jotzen jarraituko dutenik.

#### 👉 -Eliza parean bizi zara. Ardura hori ahaztea ez da hain erraza izango.

- Ez, ez da ahazten. Oraindik domekero erlojuari begira egoten naiz, mezetako ordua zaintzen, eta Artikilu noiz etortzen den ere zaintzen dut.

#### 👉 -Nola pasatzen duzu eguna?

- Orain etxean pasatzen dut eguna Eguraldi ona baldin badago, paseotxo bat ematen dut eta bestela telebista ikusten pasatzen dut eguna.

#### 👉 -Eskerrik asko Julian, eta ondo segi!

## I TXIRRITOLA PARTXIS LEHIAKETA

👉 Jakingo duzuen moduan joan den hilean San Martin eguna ospatu zen. Aramaion ekin-tza desberdinak izan ziren egun honetan. Txirritolari, San Martin jaiak udan ospatu arren, egun berean zerbait berezia egitea bururatu zitzaion, honela hainbat buruhausteren ondoren Partxis lehiaketa bat antolatzea erabaki zen. Lanari ekin, eta dena prest zegoen egunean bertan, arratsaldeko hiru eta erditan Partxis lehiaketari hasiera emateko. Hiru maila desberdin antolatu ziren; lehenengoa, sei urtetik hamar urtera, bigarrena, hamaika urtetik hamabostera, eta hirugarren bat, hamasei urtetik aurrerakoentzat.

Bi ordu inguru behar izan ziren txapeldunak zeintzuk izango ziren argitzeko. Tarte honetan Sastiñan egon zen urduritasun, poztasun, eta tentsio momentuen nahasketa ugari, eta ez da harritzekoa, berrogeita hamar partaide inguru burubelarri dadoak eta fitxak dantzan jarriaz ez baita gauza makala. Baina sufrimendu honek izan zuen saririk.

Lehenengo mailan, **Igor Oianguren** suertatu zen txapeldun, eta berarekin batera Txirritola eta diskmana etxeratu zituen.


Bigarren mailan, **Ibai Ormaetxea** izan zen irabazlea, eta Txirritola eta diskmana jaso zuen. Hirugarrenean aldiz, **Eider Etxeberria** izan zen nagusi, eta honek Txirritolaz gain 10.000 pezetako saria izan zuen.

### TRIKITILARI EGUNA

Sei eta erdiak aldera sari banaketaren ostean danok Kontzejupera hurbiltzeko aukera paregabea izan genuen, bertan Aramaioko Trikitilari Taldeak ekintza polit eta berezia baitzuen herri osoarentzat.


Aramaioko Trikitilari Taldeak, San Martin eguna bere egun bezala jaso du eta egun honetarako ere ekintza desberdinak izan zituzten, eguerdian kalejira, arratsaldez herri osoarentzat buskentak eta ardoa barra-barra.

Arratsalde partean beraz giro aparta sortu zen plaza inguruan; jendea, trikiti soinua eta sabela betetzeko beste janari eta edari. Gau partean afaria izan zen aurretik izena emana zuenarentzat. Ea hurrengo urtean ere horrelakoxe eguna pasatzen dugun!



I Txirritola partxis lehiaketako irabazleak

# Ze eskatu biher dutsezu Olentzeroi?



**Mikel Idigoras**  
**Iturralde baserrikue**

Ez dakit zer eskatu biher dutseten, ondio aguro da. Bueno, herri hontarako pakie eskatuko nuskio.



**Joxe Olaizola**  
**Añai tabernakue**

Olentzero ni naz. Gabonetan presuek etxera etorri daitezela.



**Juana Galarregi**  
**Latsagabazter baserrikue**

Ez dakit ba. Olentzero gaixorik dau eta, orduen, osasune nagusixendako eta danondako. Osasune nahikue dogu.



**Juli Garaitonandia**  
**Arrieta baserrikue**

Nik ze esango dutsut ba. Kapritxo bat dauket baine sekretue da, berai baka-rik esango dutset.



**Felisa Ormaetxea**  
**Untzuetaxiki baserrikue**

Osasune, hola jarraiketie. Negu ona egin daixela eta udabarrixe alegrie. Negue edur barik, hemen edurre tristie da eta.



**Ana Lasaga**  
**Latsaga baserrikue**

Niretako lan bat eta danondako pakie. Euskal Herriko gatazka hau konpondu daile behingoz.

## BAZKIDE-SOZIO IZATEKO TXARTELA

(Urte osoko kuota 1.000 pezetakoa izango da)

Izen-abizenak: .....

Helbidea: .....

Banketxea: .....

Kontu korrentea: .....

## ZURE SUJERENTZIAK HEMEN:



.....

.....

.....

.....